

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

NAVARRETEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Hasierako onespena ematea hilerriaren erabilera arautzen duen ordenantzari

Kontzeju honek, 2021eko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea hilerriaren erabilera arautzen duen zerga ordenantzari.

Eta hori jendaurrean jartzen da, interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak egiteko aukera izan dezaten. Erreklamaziook idatziz egingo dira, eta horretarako hogeita hamar egun izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, ordenantza hori behin betiko onetsizat joko da.

Navarrete, 2021eko irailaren 29a

Lehendakaria

JOSÉ LUIS RESINES LASAGA